



Esp. kodea: 2023HORD0004

Gaia: UDAL ORDENANTZA ARAUTZAILEA,
BIDE PUBLIKOA TERRAZEKIN (MAHAI-
AULKIEKIN) ETA BESTE INSTALAZIO
BATZUEKIN OKUPATZEA ARAUTUKO
DUENA.

Hasiera eguna: 2023/11/23

ZIURTAGIRIA

NIK, Ana Belen Hidalgo Corral andrea, ARRASATEKO UDAL AGURGARRIKO IDAZKARIAK,

ZIURTATZEN DUT:

Udaleko Osoko Bilkurak, 2023ko abenduaren 5an egindako bilkuran, besteak beste, erabaki hau hartu zuen:

“2023KO ARAUDI PLANA ALDATZEKO PROPOSAMENA: BIDE PUBLIKOA TERRAZEKIN ETA BESTELAKO INSTALAZIOEKIN OKUPATZEA ARAUTUKO DUEN ORDENANTZA BERRIA SORTZEA (2023HORD0004).”

Udalbatzarrak, aldeko 21 botorekin (EH BILDU, EAJ-PNV, SOCIALISTAS VASCOS-EUSKAL SOZIALISTAK eta ELKARREKIN ARRASATE), Hirigintza, Trantsizio Ekologiko eta Mugikortasun batzordearen diktamen hau onetsi eta akordio mailara jasotzen du:

“2016ko urriaren 2an sartu zen indarrean 39/2015 Legea. Honen 132. artikulua honakoa dio:

“132. artikulua. Arau-plangintza.

1. Herri-administrazioek, urtero, araugintza-plan bat argitaratuko dute. Bertan, hurrengo urtean onesteko aurkeztuko diren lege- edo erregelamendu-ekimenak jasoko dira.

2. Urteko Araugintza Plana onartu ondoren, dagokion Administrazio Publikoaren Gardentasunaren Atarian argitaratuko da.”

Artikulu horretatik ondorioztatzen dira honakoak:

- Nahitaezkoa dela, nahiz eta ez diren arautzen hura ez egiteak edo ez argitaratzeak izan ditzakeen ondorioak.
- Administrazio publiko guztiak behartzen ditu, hau da, lege horren 2.3 artikulua araberak, Estatuko Administrazio Orokorra, Autonomia-erkidegoen administrazioak, Toki administrazioa osatzen duten entitateak, bai eta horiei lotutako organismo publikoak eta zuzenbide publikoko erakundeak ere.

Kodea	H23/17016	Udala	Arrasate/Mondragón
Data	2023/abe./12	CUDO	000.0055.AAAA05M7.L.45P6
URL	https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAAA05M7L.45P6		
Dokumentu honen balioa egiaztatzeko, sartu zaitez webgunean edo irakurri ezazu QR irudia			





Esp. kodea: 2023HORD0004

Gaia: UDAL ORDENANTZA ARAUTZAILEA, BIDE PUBLIKOA TERRAZEKIN (MAHAI-AULKIEKIN) ETA BESTE INSTALAZIO BATZUEKIN OKUPATZEA ARAUTUKO DUENA.

Hasiera eguna: 2023/11/23

- Planak Administrazioaren arau-neurri guztiak jaso behar ditu: aurreikusitako ekimena jasoko dira, baina horrek ez du esan nahi horiek guztiak onartuko direnik, ezta Plana aldatu ezin denik ere arau berriak sartzeko edo aldatzeko beharrezkoa den guztietan. Ez da tresna zurruna, baizik eta administrazioaren asmoak eta beharrak herritarrei "aurreratzea".
- Arauak onartzen diren urtearen aurreko urteko abenduaren 31 baino lehen egin eta onartu behar da.

Udal Plenoak, 2023ko otsailaren 8an egindako bilkuran, besteak beste, 2023rako Araudi Plana onartu zuen. Bertan ez zen aipamenik egin bide publikoa terrazekin eta beste instalazio batzuekin okupatzea arautuko duen Ordenantza berri baten sorreraren inguruan.

Aldiz, udalak esparru hori Ordenantza baten mailako arau bidez antolatzea beharrezkoa dela uste du. Hori justifikatzen duen Hirigintza Zerbitzuko buruaren txostena jasota dago espedientean.

Halaber, ordenantza berri hori sortzeko eman beharreko pausuak lehenbailehen abiatu behar direla ere uste du udalak. Horretarako bidean eman beharreko lehen pausua litzateke Udal Plenoak 2023rako onartu zuen Araudi Planaren aldaketa gauzatzea.

Gainera, aipatutako txosten teknikoan honakoa proposatzen da:

“Hirigintza, Trantsizio ekologiko eta Mugikortasun Batzordera gaia eramatea, 2023rako udalak onartuta duen Araudi-Planaren aldaketari buruzko bere irizpena emateko, Planak jaso dezan Bide Publikoak Terrazekin (mahai-aulkiekin) eta Bestelako Instalazio Batzuekin Okupatzea Arautuko Duen Udal-Ordenantza berriaren sorrera. Ordenantza berri horren helburua litzateke bide publikoen erabilera orokorraren eta ostalaritzako terrazen erabileraren artean sortzen diren talkak ekiditeko asmoz, indar juridiko nahikoa daukan araudi bat sortzea.”

Horiek horrela, Hirigintza, Trantsizio ekologiko eta Mugikortasun Batzordeak Osoko Bilkurari proposatzen dio:

Lehenengoa: 2023rako Araudi Plana aldatzea aurrez aipatutako testua sartuz.

Bigarrena: Aipatutako aldaketa udal web orrian erakusgai jartzea.”

Kodea	H23/17016	Udala	Arrasate/Mondragón
Data	2023/abe./12	CUDO	000.0055.AAAA05M7.L.45P6
URL	https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAAA05M7L.45P6		
Dokumentu honen balioa egiaztatzeko, sartu zaitez webgunean edo irakurri ezazu QR irudia			





ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

Esp. kodea: 2023HORD0004

Gaia: UDAL ORDENANTZA ARAUTZAILEA,
BIDE PUBLIKOA TERRAZEKIN (MAHAI-
AULKIEKIN) ETA BESTE INSTALAZIO
BATZUEKIN OKUPATZEA ARAUTUKO
DUENA.

Hasiera eguna: 2023/11/23

Eta hala jasota geratzeko eta ondorio egokiak sortzeko, ziurtagiri hau egin eta sinatzen dut,
Alkateak agindu eta ontzat emanik, Arrasaten, 2023ko abenduaren 12a.

OE

ALKATEA

Kodea	H23/17016	Udala	Arrasate/Mondragón
Data	2023/abe./12	CUDO	000.0055.AAAA05M7.L.45P6
URL	https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAAA05M7L.45P6		
Dokumentu honen balioa egiaztatzeko, sartu zaitetz webgunean edo irakurri ezazu QR irudia			

